

**UDAL-BILTEGIAN ALDAGELA BERRIAK ERAIKITZEKO IGELTSERITZA LANAK
ARAUTZEN DUTEN OINARRI ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA**

1. Kontratuaren helburua

Kontratuaren helburua udal-biltegian aldagela berriak eraikitzeke igeltseritza lanak egitea da.

2. Kontratazio-prozedura

Kontratazio prozedura negoziatua izango da.

3. Obraren aurrekontua eta diru-izendapena

Kontrata bidez obra egiteko aurrekontua 29.002,32 €-koa da (BEZ barne).

4. Lizitazioan parte hartzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskaintza egitea eskatzen zaien enpresek I. eranskinean jasotako ereduaren arabera aurkeztu beharko dute eskaintza, behar bezala itxitako sobre baten barruan.

5. Eskaintzak aurkeztea

Eskaintzak aurkezteko epea 2009ko uztailaren 20an bukatuko da, eta horixe izango da aurkezteko azken eguna.

Eskaintzak Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:00era bitartean.

6. Proposamenen balorazioa

Eskaintzen edukin ekonomikoa baloratuko da bakar-bakarrik.

7. Proposamenak irekitzea

2009ko uztailaren 20an, eguerdiko ordu bat eta erdietan bilduko da Kontratazio Mahaia Alkatzeko bulegoetan, aurkeztu diren plikak irekitzeko.

Horrela, baldintza pleguan ezarritako aginduei jarraituz, Kontratazio-Mahaiak, eskaintzak lehentasunaren arabera ordenaturik, erabaki-proposamena bidaliko dio Kontratazio Organuari; honek hartuko baitu esleipenari buruzko erabakia.

8. Adjudikazioa

Lanak adjudikatzen zaizkionak, ondorengo eginkizunak bete beharko ditu jarraian agertzen diren epeetan, adjudikazioa jakinarazten zaionetik kontatzen hasita:

- a) Kontratua sinatu aurretik:
1. Gutxienez 60.101,21 €tako erantzukizun zibileko poliza egin.
 2. Behin betiko bermea ezarri beharko du, hau da, adjudikazio-prezioaren (BEZ kanpo) %5a. Fidantza ezartzeko bidea Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak 84. artikuluan jasotzen dituenetatik edozein izan daiteke
 3. IFKaren kopia konpultsatua eta Ekonomi Ihardueren Zergaren ordainketaren azken egiaztagiria aurkeztu.
 4. Enpresa ordainketetan egunean dagoela adierazten duten Hazienda eta Gizarte Segurantzaren egiaztagiriak aurkeztu.
- b) Behin-behineko adjudikazioa behin betiko egin beharko da hamar laneguneko epean, goian aipatutako epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita, baldin eta adjudikazio-hartzaileak adierazitakoak egin baditu. Aitzitik, beteko ez balitu, behin-behineko adjudikazio-hartzaileari ez zaio behin betiko adjudikazioa egingo.

SPKLaren 139.2 artikulua arabera, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, adjudikazioak lizitzaileei eragindako gastuak konpentsatzeko Administrazioak zehaztuko ditu gastuok, lizitzaileei entzunaldia eman eta gastuak justifikatu ondoren.

Kontratua zeharo gauzatzeko udal-organo eskudunak behin betiko adjudikazioa emango du eta adjudikazio-hartzaileari jakinaraziko zaio. Hau, jakinarazpenaren biharamunetik egutegiko hamar eguneko epean, Udalean bertaratu beharko da kontratua dokumentu administratiboan formalizatzeko.

Kontratistaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

9. Kontratuaren iraupena eta obrak amaitzeko epea

Kontratuaren iraupena lanen adjudikazioa jakinarazten denetik hasi eta behin betiko fidantza itzultzen den artekoa izango da.

Adjudikatutako lanak, lanen kontratua izenpetzen den egunetik kontatzen hasita 30 eguneko epean bukatu beharko dira.

10. Obrak egitea eta ikuskatzea

- a) Lanak egiterakoan estu-estu jarraituko dira klausula administratibo partikularren plegu honetan eta plegu honen oinarri den idatzitako proposamen teknikoan zehaztutakoak eta baita udal teknikariak kontratatari idatziz eman diezazkion jarraipideak ere. Jarraipide horiek ere, derrigorrez betetzekoak izango dira.
- b) Plegu honen bidez adjudikatzen diren lanak egitean inolako kalterik, okerrik edo, istripurik izanez gero, kontratistarena izango da horien erantzukizuna.
- c) Bergarako Udalak bere gain izango du, udal-teknikarien bitartez, obrak ikuskatu eta begiratzeko eskubidea.

11. Lanen ordainketa eta prezioak berrikustea

- a) Plegu honetan zehaztutako lanen ordainketa, adjudikazio-hartzaileak egindako lanen azken egiaztapena edo faktura aurkezten duenean egingo da, eta organu aginpidedunak onartuko du, aurrez Hirigintza eta Obretako batzorde informatzaileak oniritzia emanda. Ordainketa hurrengo 60 egunen barruan egingo da.
- b) Kontratatistak bere gain hartuko du lanen arriskua eta bera izango da obran gerta litezkeen halabeharren erantzule; eta ezinbestekoren bat izan ezean, ez du izango lanetan izan litezkeen kalte, galera edo matxuren kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik, eta beti ere bere arduragabeziagatik ez izatekotan.

12. Garantia-epea eta fidantza itzultzea

Lanak bukatu ondoren, SPKL-aren 218. artikuluari jarraituaz, obra-hartzea izango da eta 12 hilabeteko epea egongo da azken onarpena emateko. Azken onarpena eman ondoren jarritako fidantza itzuli egingo da.

13. Administrazioaren prerrogatibak eta jurisdikzio aginpideduna

Sektore Publikoko Kontratuaren Legean jasotako mugen barruan eta beti ere bertan ezartzen diren baldintza eta ondorioak kontutan izanik, administrazioak kontratu administratiboak interpretatzeko, kontratuok betetzean sortzen diren zalantzak argitzeko, interes publikoko arrazoiengatik horiek aldatzeko eta hauei amaiera emateko eta honen eraginak zehazteko eskubidea izango du.

Erabaki horiek amaiera emango diote bide administratiboari eta bete beharrekoak izango dira, hartzen diren unetik bertatik.

Kasu horietan entzun egingo zaio kontratistari.

14. Zigorrak

Kontratistak, berari egotz lekizkiokeen arrazoiengatik, lanak ezarritako epean baino beranduago amaituko balitu, Administrazioak kontratua amaitutzat eman edo obrak entregatzea atzeratzen den egun bakoitzeko 5,80 €-ko zigorra jarri ahal izango du.

Berandutza zigorrak kontratuaren prezioaren ehuneko bostaren multiplo bat izatera iristen direnean, kontratazio organoak izango du eskumena kontratua bertan behera uzteko edo obrak egiten jarraitu eta beste zigor batzuk jartzea erabakitzeko.

15. Segurtasun neurriak

Kontratistak indarrean dauden arauak ezartzen dituzten neurriak hartuko ditu laneko higie eta segurtasuna bermatzeko. Era berean, inori kalterik ez egiteko obraren zuzendaritzak agintzen dizkion segurtasun-neurriak ere zaindu beharko ditu.

16. Errejimen juridikoa

Baldintza-plegu hauetan aurreikusi gabe daudenetarako ondorengo lege eta arautegiak aplikatuko dira:

- Toki Jaurbideko Oinarrien 7/1985 Legea, apirilaren 2koa; 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, apirilaren 18koa, Toki Jaurbidean indarrean dauden xedapenen Testu Bateratua onartu zuena, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak dioenarekin kontraesanik ez duen bitartean.
- Sektore Publikoko 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa.
- Urriaren 30eko, 30/2007 Sektore Publikoko Legea, zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua.
- Administrazio Publikoaren Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bitartez onartua.
- Eta besterik ezean, zuzenbide administratiboko bestelako arauak, eta halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

I. ERANSKINA

Izena: _____

Helbidea: _____

N.A.N.: _____ (honekin batera doa kopia).

Zein enpresaren izenean: _____ Enpresaren IFK:

Goian azaltzen diren nortasun-datuak dituenak, enpresaren nortasun juridikoa kreditatzeko agiria eta bere ordezkariak kreditatzeko akta notariala aurkezten ditu eta

ADIERAZTEN DU:

LEHENENGO: Ezagutzen dituela UDAL-BILTEGIAN ALDAGELA BERRIAK ERAIKITZEKO IGELTSARITZA LANEN lizitazioko baldintza administratibo partikularrak, baldintzak onartzen dituela eta lanak aipatutako baldintzotan egiteko konpromisoa hartzen duela ondorengo prezioan _____

gehi _____

eurotan (%16ko BEZari dagozkionak) (zenbakiz eta letraz).

Eta era berean, **ZINPEAN AITORTZEN DU:**

- a) Eskaintza egilea egunean dagoela bere zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan.
- b) Ez dagoela Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan ezartzen diren debekuetako batean ere eta plegu honen xede diren obrak egiteko behar den gaitasun juridikoa eta nahikoa bitarteko badituela.
- c) Adjudikazio-hartzaile izanez gero, onartutako plegu hauetan ezarritako betebeharrak eta baldintzak erabat eta zorrotz betez egingo dituela obrak.

(Data eta eskaintza-egilearen sinadura)